



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2013ko abenduaren 12ko 18:15ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Aitor Arozena, Kiroleko zerbitzuburua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
 - Ramón Martiarena, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaria.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Maddi Arzak, Lezoko Udalekoa.
 - Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
 - Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
 - Teresa Ortega, Gipuzkoako Judo Federaziokoa.
 - Alicia Figuerola, Kirol Egokituaren Federaziokoa.
 - Rubén Sánchez, Saskibaloiko Federaziokoa.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
 - Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
 - Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.

Banatutako dokumentazioa

- . 2013ko ekainaren 11ko bileraren akta
- . 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa
- . Aurreko dekretuaren aurkezpen-azalpena
- . Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritza Nagusiak 2012, 2013 eta 2014an emandako diru laguntzak alderatzeko taula, diru laguntza ildoan araberakoa



1) 2013ko ekainaren 11ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Aho batez onartu dute, inolako aipamenik egin gabe.

2) 2013/2014 ikasturteko eskola kiroleko jarduera programa abian jartzeko uneko gorabeherak

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du beste urteetako gorabehera berberak gertatu direla, esate baterako aplikazioan izena ematen duten baina gero jardueretan parte hartzen ez duten taldeak edota eskolaumeak izatea.

Aitor Pérezek esan du bere zonako udalak serio jarri direla izen emateen gaiarekin; ikastetxeen izen emateen jarraipen zorrotza egin dute, eta parte hartzen ez dutenei baja eman diete. Bestetik, adierazi du aurten kirol materiala oso berandu iritsi dela.

Imanol Fernández de Larrinoak dio enpresa hornitzaileak aditzera eman zuela saskibaloiko baloiak beste artikulua baino beranduago emango zituela, fabrikatzailearekiko arazoak tarteko.

Aitor Pérezek dio albaranek urriko data zutela.

Imanolek erantzun du ezen, artikuluen hornikuntzan gorabeherarik izanez gero, horiek lehenbailehen eman behar zaizkiela aditzera eskualde bulegoei, hain zuzen konpontzen ahalegintzearen. Edonola ere, artikulua gehienak garaiz iritsi dira.

Pako Urrestarazuk aipatu du enpresa hornitzailea Hobby Sport denean ez dela arazorik sortzen, ezta artikulua batzuen ordez beste batzuk jasotzeko ere. Aitzitik, Kirol Aukerarekin zailtasun gehiago sortu ohi da.

Fernando Urienek esan du aurten eskubaloiko baloiak oso onak direla.

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du Debabarreneko eskualdean kimu mailako eskolaumeak hartzen dituzten Debabarrena klubaren haur mailako areto futboleko bi talde daudela. Horien partidak eskualdeko egutegiko partidekin batera izaten dira, eta horren eraginez gertatzen ari da azken lehiaketa hauetan eskolaume horiek ez agertzea. Egiaz, arazo hau areto futbolarik Gipuzkoan dituen arazo orokorren barnean sartzen da; izan ere desagertzen ari da, 8ko futbolaren praktika gora egiten ari den bitartean.

Fernando Urienek esan du urterokoa ari dela gertatzen: futbol eskolek ez dituzte egitarau programatuak segitzen, eta arazoak eragiten dituzte eskola kiroleko programako jarduerak garatzeko unean. Beste maila batean, oso balorazio positiboa egin du Kirol Egokituaren Federazioa, eta zehazki horren zuzendari tekniko Alicia Figuroa, desgaitasuna duten eskolaumeen artean kirol praktika sustatzeko egiten ari diren lanari buruz. Aipatu ditu, halaber, ikastetxeetako entrenatzaileei zuzendurik Zarautzen garatutako prestakuntza jarduerak. Bestetik, Auspoa izeneko proiektuaren barnean eskola kiroleko monitoreak prestatzeko proiektua aipatu du. Ikastaro horretan zazpi pertsona daude izena emanda, eta asmoa da datozen ikasturteetan proiektuari jarraipena ematea.



Imanol Fernández de Larrinoak kontatu du ezen, Araban, Lan Ikuskaritza hainbat jarduera egiten ari dela eskolatik kanpoko jardueren garapenean sortzen diren lan egoerak erregularizatzeko; horrek lurralde horretako eskola kirolaren antolaketari eragiten dio. Adierazi du lan kontrataziorik gabeko ordainsariak daudenean gertatzen direla arazoak. Ikuskaritzen dinamika hori Gipuzkoara ere irits daiteke.

Susana Santorrek irakurri egin du kirol ez profesionaleko lan hauek Gizarte Segurantzaren erregimenetik eta PFEZtik kentzeko legegintzako ekimen bati buruzko dokumentu bat.

3) 2014ko urterako aurrekontu aurreikuspenak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritza Nagusiak diru laguntzen arloan izandako aurrekontuen alderaketa taula bat proiektatu dute; horrek 2012, 2013 eta 2014ko urteak jasotzen ditu, onuradunen arabera (federazioak, udalak, klubak...) eta diru laguntza ildoka antolatuta.

Taulako hainbat konturi buruzko azalpenak eman dituzte: arraun klubak kasua -lehen laguntza ematen zitzaieen ACTn parte hartzen zuteni-; diru laguntza ildoetarako guztirako kopuruaren jaitsiera; eliteko taldeak, ez baitira agertzen Kirolgi Fundaziotik jasotzen dituztelako laguntzak; etab.

4) Eskola kiroleko monitore ikastaroa

Imanol Fernández de Larrinoak gai hau aipatu du, adieraziz, lehenik, formatu aldaketa bat egin dela 2013-2014ko ikasturte honetarako. Orain arte online prestakuntza teorikoa lau modulutan banatzen zen, guztira 45 ordu eginez, eta prestakuntza praktikoa hiru saio ziren, guztira 5 ordu osatzeko. Edukiari eta ikaste orduei gehiegizko iritzi zaie (45), eskas, berriz, alderdi praktikoa. Orain, ikastaroak 20 orduko prestakuntza teorikoa (lau moduluko egitura mantenduz) eta 12 orduko praktikak izango ditu.

Une honetan ikastaroaren hirugarren edizioa egiten ari da; lehen txandan 159 pertsonak eman dute izena, eta horietatik 57 gipuzkoarrak dira. Hauetatik 10 errugbiko monitoreak dira eta, gainera, Iparraldeko irakasleek emandako errugbi ikastaro espezifiko bat egiten ari dira, monitore ikastaroko prestakuntza teorikoarekin batera. Epe ertain/luzera begira, pentsatzen da eskola kiroleko monitoreen prestakuntzan finkatuko den formatuak honakoak izango dituela: bloke komun bat (egun online ematen den prestakuntza teorikoari dagokiona bera) eta modalitate bakoitzerako bloke espezifiko bat.

Ondoren, bertan direnek hainbat galdera eta aipamen egin dituzte, gai-zerrendako gai honen inguruan.



5) *391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa*

Imanol Fernández de Larrinoak dekretuaren aurrekariak eta indarrean sartzeko gorabeherak aipatu ditu. Eskola kiroleko modalitate bakoitzerako eta, hala badagokio, kategoria bakoitzerako diziplina araubide espezifikoak garatzeko lana egin beharko da. Ondoren, behar bezalako informazioa eman beharko zaie agente inplikatuari, beharrezko prestakuntzarekin batera.

Gipuzkoan ez dago diziplina arazo larri gehiegirik, eta dekretuak jasotzen dituen zigorrek, araubide garapenen bidez modulatu ezean, gehiegizkoak izan daitezke kasu askotan.

6) *Kirol hastapenerako unitateak*

Susana Santorrek kontatu egin du kirol eskolen jarduerak baimenei buruzko araudian ezarritako esparruak gaintzen dituzten kasua.

Aitor Arozenak galdetu du benetan norbaitek kontrolatzen dituen kirol eskoletako taldeek ikasturte batean zehar jokatzeko dituzten partidak.

Imanol Fernández de Larrinoak proposatu du datorren urtarrilean Foru Aldundiari aditzera ematea kirol hastapenerako unitateei dagokienez ezagututako gorabeherak.

Aipatu du, halaber, futbol eskolen arteko topaketak antolatzeke ahaleginak egiten ari direla.

7) *Mugikortasun iraunkorreko plana*

Aitor Arozenak adierazi du aplikazio bat sortu dela, eskola kiroleko lehiaketetan desplazamendu iraunkorrak bultzatu ahal izatearren. Abian jarriko da, nola funtzionatzen duen ikusteko. Eta pertsona batek aplikazioaren jarraipena egingo du.

Gipuzkoa osoan ezarriko den galdetu du Fernando Urienek.

Aitor Arozenak baietz erantzun dio.

Eskualde edo zonen arabeko aukerak daude mugikortasun iraunkorrerako. Orsoaldearen kasuan, garraio publikoa erabiltzeko ekimen bat ari da garatzen. Garraio publikoaren maiztasunak direla eta, irtenbide hori ez litzateke posible izango, esate baterako, Tolosaldean eta Goierrin.

Asier Sarriegik aipatu du sistema hau futbol lehiaketetan parte hartzen duten taldeetara ere hedatzea ari direla aztertzen.

8) *Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko hainbat kide aldatzeko hauteskundeak*



Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du prozesua abian jarriko dela, eta urtarriletik aurrera beharrezko informazioa bidaliko dela.

9) *Bestelakoak: zigor espedienteak, etab.*

Ramón Martiarenak aipatu egin ditu 2012/2013 ikasturtean tramitatutako hiru zigor espedienteetan izandako zigorrak; horiek kasu batzuetan, eta Kirol Legea aplikaturik, zigor ekonomiko garrantzitsuak zekartzaten. Azkenean, diru zigorrak etenik uztea erabaki zuten.

Antiguokoren kasuan, hiru espedienteetako bitan izan baita inputatua eta zigortua, errendimendu lehiaketetako fase finaletatik kanpo geratu da, haur maila handi, haur maila txiki eta kimu mailan zehazki.

Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 20:45ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria